**Goi Eskola Politeknikoa**

Albisteak

# Arrautza jaurtiketa eta kotxe telegidatuen txapelketen irabazleak.

2013/05/10



Arrautz jaurtiketaren modalitateen irabazleak

Ikasleez nahiz langileez osatutako 29 taldek parte hartu zuten arrautza jaurtiketa txapelketan eta irabazleak honako hauek izan ziren:

Hegaldirik onenaren saria: Alex Kremeto taldea osatzen zuten Iñigo Arratibel, Pablo Odriozola eta Jon Ander Larrañaga.



Hegaldirik luzeenaren saria: Artalde taldea osatzen zuten Iratxe Fernandez, Ander Lahidalga, Joseba Church, Irati Otamendi eta Goizane Atxutegi.



Diseinurik onenaren saria: Informazio Sistemen departamentua osatzen duten Ana Altuna, Eduardo Sánchez, Iker Coranti , Mikel Kortabarria, Judit Manias, Iñigo Zendegi eta Ivan Plazak  egindako Arrautzku tramankulua.



Jarraian, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Industria Diseinuko Graduan eta Industria Ingeniaritzako Masterrean dauden ikasleek egindako kotxe telegidatuen lasterketa izan zen. Zirkuituari bi

buelta azkarren eman zizkion kotxe irabazlea Buztang izan zen, Jon Iragorri, Aitor Etxaniz eta Jon Ander Urdalletak egina.

